

Korrika Txikia

Haurren Korrika da, eta herriko ikastetxeen laguntzarekin, herria zeharkatzen du, haurrek ere Korrikan parte hartzeko aukera izan dezaten.

Korrika Txikia **Alegian**

Eguna: **martxoaren 27an**

Ordua: **11:30**

Lekua: **Aralar Institutua**

Omendua

Korrikaren ekitaldi bakoitzean, euskararen aldeko konpromisoagatik nabarmendu diren lagunak, taldeak edo eragileak omentzen dituzte.

Korrika honetan Errigora omenduko dute. Nafarroa hegoaldeko ekimen herritarra da Errigora, eta euskara eta bertako elikagaiak sustatzea du helburu, auzolanean arituta.



Martxoaren 28an

13:19an

Alegiatik pasako da

24.korrika **æk**
Euskara gara
Atharratzetik Bilbora
2026ko martxoaren 19tik 29ra



Zer da Korrika?

Korrika Euskal Herria zeharkatzen duen euskararen aldeko ekimen erraldoi eta herrikoia da. Bi urtean behin izaten da.

Zertarako da Korrika?

- Gure hizkuntza zaintzearen garrantziaz jabetzeko.
- Euskaltegietarako dirua biltzeko.



- 11 egunez eta gauez Euskal Herria osoa zeharkatuko du, gelditu gabe.
- Euskal Herriko zazpi lurraldeetatik pasatuko da: Zuberoa, Nafarroa Beherea, Lapurdi, Nafarroa, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia.
- 2.175 kilometro egingo ditu, eta 3.436 aldiz aldatuko da lekukoa eskuz.
- 1980 urtean egin zen lehen aldiz.
- Milaka eta milaka lagunek hartzen dute parte Korrika bakoitzean.

Lekukoa

Lasterketaren hasieran, (2026-03-19, Atharratze) mezu bat gordeko da lekukoa. Lekukoa eskuz esku ibiliko da, herriz herri, 11 egunez, 2.175 kilometro eginez. Helmugara iristean, (2026-03-29, Bilbo), lekukoa ireki eta barruan duen mezua irakurriko da.

Aurtengo leloa: Euskara gara

Aurtengo Korrikaren leloa **Euskara gara** da. Horrekin hitzun guztiak garrantzitsuak garela eta denon artean euskararen herria osatzen dugula adierazi dute antolatzaileek. Baita euskarak arnasa berria behar duela ere.

Abestia

Korrika bakoitzak bere abestia izaten du. Aurtengoa ZETAK taldeko Pello Reparazek egin du, eta lagun izan ditu Maixux Zugarramurdi eta Erramun Martikorena. **Xiberutikan mendebaldera** da abestiaren izena, eta bideoklipa ere ikusgai dago.

Informazio guztia, eskura

Korrikaren ibilbidea herriz herri, aurtengo eta aurreko urteetako abesti guztiak, bideoklipak, argazkiak eta Korrikaren inguruko albisteak eskura izateko, **korrika.eus** webgunera jo daiteke. Korrika APP aplikazioa ere doan jaitsi daiteke, iOS zein Android sistema eragileetan.

